

**6 Ostadarreko neskek
18 partida irabazi
dituzte aurten, bakar
bat ere galdu gabe
sendo diraute**



Landare eta lore koloretsuz jantzi da Okendo plaza asteburuan.- Bigarren urtez jarraian, eskualdeko landare ekoizleen produktuak sustatu eta hauei salmenta bidez aterabidea eman asmoz Landare eta Lore azoka arrakastatsua egin zuten larunbat goizean herriko erdigunean. Lasarte-Oriako Udalak eta Behemendi Landa Garapenerako Elkarteak elkarlanean antolatutako ekintza izan zen. Goizeko lehen orduetan zeruian lainoren bat edo beste agertu arren, ateri iraun zuten goizak eta azoka amaitezen saltzaileak kontent ziren saldatuakorekin. Herriar batzuk paseoa zebiltzala izan zuten azokaren berri, besteak aurrez jakitun hurbildu ziren, baina guztiak postuz zutuaixka, orkidea, larrosa, kaktus, bonsai, landare exotiko edo dena delakoei begira ibili ziren. Plazaren erdian haurrentzako ekintzak eta jolasak egiteko lekua ere atondu zuten. Doreak osatuz edo makilekin golfean, gustora aritu ziren haurrak zelaixo txikietan gurasok erosketak egiten zituzten bitartean. Adin guztiak jendea hurbildu zen, batzuek kuriositatez begiratzen zituzten lore berezienak, ukitu edo usaintzen ere aritu ziren batzuk. Lorezainarekin tertulian eta iritzirik konpartitzen ere aritu ziren landare munduan jakituria gehien zuten herritarrek. Finean, Okendo plazak itxura alai, bizi eta koloretsua hartu zuten larunbat goiz eta eguerdian partean.

2 HONDAKINAK BAI plataforma zaborteagirik gabeko Europaren alde

Hondakinen kudeaketa mahai-gainean dagoen eztabaidagai garrantzitsua da Gipuzkoan. BAI plataformak asteazkenean gai honen inguruan duen ikuspuntua aurkeztu zuen. Besteak beste, Europako sistemak jarraitu eta zaborteagirik gabeko lurraldea nahi dutela adierazi zuten ekitaldian.

3 UDALA Somotoko afera argitu nahi dute EAJ, LOHP eta Bilduk

Barrio, Alkorta eta Prieto udal-ordetzarik ostiraleko agerraldian esan zuten eskatutako auditoriak irregulartasunak baieztatu dituela. Era berean, PSE-EEnen "manipulazio saiaker" salatatu zuten. Zaballosek asteartean "behingoz" Somotora bideratutako diru laguntzen afera ixtea eskatu zuten.



4 MUSIKA Martxan da Aste Musikala, bigarren urtez

Ainhoa Merzero sopranoak eta Alberto Saez piano-joleak ireki zuten ostiralean II. Aste Musikala. Larunbatean Arimaz Kamara Orkestra eta Santa Zezilia Abesbatza aritu ziren eta igandean berriz, Illumbe eta herriko Zero Sette Akordeoi Orkestra ikuste-ko parada izan zuten herritarrek kultur-etxean.

**ETORRI GURE
ESKAINTZA BEREZIAK
IKUSTERA!**

TAE 0%

479€
399€
469€
349€
479€
299€

**ELECTRICIDAD
EIA
ARREGUI**

www.electricidadarregui.com

Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 361080 • Tel./ Faxa: 943 372521

HONDAKINAK

"Hondakinak kudeaketan zaborteagirik ez"

Europa iparralde eta erdialdeko herrialdeen hondakin sistema ezarri beharko litzakeela uste du BAI plataformak

Gaur egun, hondakinak kudeaketa eztabaidagai garrantzitsua da Gipuzkoan. BAI plataformak asteazkenean gai honen inguruan duen ikuspuntua aurkeztu zuen. Besteak beste, Europako sistemak jarraitu eta zaborteagirik gabeko lurraldea nahi duela adierazi zen ekitaldian.

TXINTXARRI

BAI plataformak antolatuta asteazkenean Jose Mari Puldain, Natxo Izeta, Luisamari Ormaetxea eta Patxi Amantegik hondakinak kudeaketari buruzko hitzaldia eskaini zuten. Hainbat izan ziren Manuel Lekuona kultur-etxeko hitzaldi arora hurbildu ziren herritarrik.

Lehenik Luisamari Ormaetxea eta Patxi Amantegik Usurbil eta Tolosaldeko atez atekoaren aurkako plataformen eta herrialde hauekako esperimentazio hitz egin zuten.

Errausketa plantaren aurkako mugimenduz mintzatu ziren. Honen ondorioz, atez atekoaren eta Zero Zabor plataformak "salbatzaileen" sorreraz hitz egin zuten.

Era berean, Foru Aldundi eta herrietako aldametako politikoaren ostean, herrietan eman den hondakin kudeaketa inposaketa eta informazio

eta eztabaida eza salatu zuten. Plataformen lana azaldu eta hauek kontsultak eta atez ateko bertan behera geratzeko sinadurak lortu dituztela ere aipatu zuten.

Europari begira

Joxe Mari Puldainek Europan martxan dituzten hondakin kudeaketa sistema ezberdinetaz hitz egin zuen, baita Gipuzkoako hondakinak kopuruei buruz ere, "320.000 tona bilduko dira. Horietatik 40.000 tona organikoak dira".

Ipar eta erdialdeko Europako sistemak adibidehurtu beharko gunitzakeela aipatu zuten, "%50 edo %60a biltzen dute eta Zero Zaborteagirik gabeko erdialdeko herrialdeko dira". Honetarako, Alemaniako hainbat herrialdeetan martxan ari den hondakin kudeaketa sistema, konpostaje planta, tratamendu mekaniko-biologiko planta eta errausketa planta, erakutsi zuten.



Usurbil eta Tolosaldeko herri eta Europako esperimentazioak azaldu zituzten.

Era berean, tratamendu mekaniko-biologikorako, TMB planten funtzionamendua azaldu zuten. Materia bizigabea sortu eta hauek gordailu edo "zaborteagitar" eraman direla azpimarratu zuten.

Zaragozako TMB plantaren irudiak erakutsi zituen, baita Europa hainbat herrialde eta herri erdian martxan dauden errausketa planten irudiak ere.

Zubietan TMB planta bat ezarriko dutela eta Foru Aldunditik inerteen zaborteagirik non kokatuko den ez duela esan aipatu zuten.

Legedia eta zaborteagirik

Azkenik, Natxo Izetak inerteen dagoen legeaz hitz egin zuen, PIGRUG-a eta honen garapen planak izan duen moduraz ere aipatu zuten.

Izetak azpimarratu zuenez, PIGRUG-ak eta ezker abertzaleak martxan jarritako 2008-4 plan berriak helburu berdinak ditu, hondakinak murrizketa eta %60aren bilketa.

Baina azken honek errausketa plantarik aipatzen ez duela eta inerteen gordailuak behar dituen segurtasun neurriak ere aipatzen direla adiera-

zi zuten, baita Catalunyak hainbat herrietako egoera ere. Horregatik, egun eztabaida zaborteagirik egon edo ez dela adierazi zuten.

BAI plataformak PIGRUG-aren alde eta Europako erdialdeen antzera, zaborteagirik ez egotearen alde egingo duela onartu zuten, baita atez ateko Lasarte-Orian ezartzen bada plataformak honen aurka lan egingo duela ere.

Amiairen hitzaldira hurbildu ziren herritarrek haien galderak era iritziz eskainitako aukera izan zuten.

Aldundiaren erantzuna

BAI plataformak lehengo astean eskainitako prentsaurrekoari erantzunez, Gipuzkoako Foru Aldundiak inerte planta erakitzearren zurrumuru gerazututa dio TXINTXARRI aldiakizari.

Inerteen gordailua kokatzeko hiru aukera daude, Gipuzkoan dauden hiru harrobi eta lurrak berreskuratzeko aldera bertan ezarriko lirateke gordailuak. Beraz, Zubietan konpostaje planta eta tratamendu mekaniko-biologiko planta eraikiko direla jakinarazi du.

Ikasleen greba arrakastatsua

Lasarte-Usurbil Institutuan eta Landaberri BHIIn erabakito jarraipena izan zuen osteguneko ikasleek egindako greba deialdiak. Ikasleek egun osoan zehar euren aldarrikapenak ezagutzera emateko ekintzak egin zituzten herrian. 12:00etan Okendon kontzentrazioa egin zuten eta 19:00etan manifestazioa.

Ikasle Abertzaleak deitutako mobilizazio egunean LOMCE-ren aurkako jarrera sendoa erakutsi zuten helburu ikasle eta atxikipena azalduko hainbat eragilek.

Lasarte-Orian ikasleek azaldu bezala, "Hezkuntza erreforma honek, besteak beste, euskara hirugarren mailako hizkuntza bezala kontsideratzen du, txikitatuz atzerketa eta emaitzen bidez gaitzen etorkizuna bideratzen du, eskoletan sexu banaketa egoera bermatzen du besteak beste".

LOMCE eta gainontzeko erreformak gaitzesteko herrian zehar euren aldarrikaz abaldu zituzten. Era berean, erreforma guzti hauei aurre egitea guztiak, ikasle, irakasle eta gurasoei dagokiera gogoratu zuten.

Manifestazioa

Arratsaldean eskualde mailako manifestazioa egin zuten ikasleek herriko kaleetan barena "LOMCE, EU2015 eta Heziberri ez! Euskal Herrian hezkuntza herritik eta herriarentzat" lelopean. Ikasleek hainbat herritarren babesa izan zuten ibilbide osoan zehar. Okendon bi ikasle grebaren arrazoiak azaldu eta pankarta bat zintzilikatu zuten oholotan bertaratuakoen txurren artean. Lege hauei aurre egiteko lanean jarraituko asmoa ere adierazi zuten.



Erdigunetik egin zuten eskualdeko ikasleek manifestazioa.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txinbarriak ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



GPKo Kultura eta
Euskara Departamendua

Argitaratzailea:

Tiatkun Kultur Elkartea

Celtoki kalea 4

20160 Lasarte-Oria

943 366 858/943 371 448

C-20407557

Legeko gordailua:

SSS13/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakia: 7800

txinbarri

Eredakzioa:

Nerea Ezpigitze, Maider

Azumendi, Jon Altuna E.

txinbarri@txinbarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Antola

publizitatea@tlatkun.com

administrazioa@tlatkun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,

Ane Lazabak, Maitu Arriola,

Óndozola, Jone M. Hernandez,

Oihana Salazar, Pako Alzpitarte,

Edu Galardi

Informazioa:

Xabier Amadoz

UDALA

Somotoko afera argitzea helburu

Irregularitasun larriak ondorioztatu ditu auditoriak EAJ, EH Bildu eta LOHPren ustez

EH Bildu, EAJ eta LHOP alderdiek Lasarte-Oriako PSE-EEren aldetik manipulazio saiakera salatuta nahi izan zuten ostiralean egindako agerraldian. Pablo Barrio alkatea, Ana Prieto eta Estitxu Alkorta batera azaldu ziren asteartean PSE-EEK egindako adierazpenen harira. Honekin batera, auditoriak irregularitasun larriak egon zirela baieztatu egin duela azaldu zuten.



Estitxu Alkorta, Pablo Barrio eta Ana Prietok eman zuten prentsaurrekoa ostiralean.

TXINTXARRI

Agerraldian EAJ, EH Bildu eta LOHP alderdiek ordetzariek erabakitako ordetzariek azaldu nahi izan zuten "PSE-EEren partetik manipulazio saiakera bat sufritzen ari gara, kasu honekin helburu elektroarrik izan ditzakegula esaten ari baita".

Argitu nahi izan zuten "PSE izan da orain arte Somotoko kasuaren inguruan jaso diren berri guztiak publiko egin dituzten" euren aldetik, zentzu honetan ez dutela inolako intentziorik izan esan zuten eta emandako pauso guztiak bame ikerketa bati eta gertaeren argipenera dagozkiok izan direla soilik.

"Prozesu hau arinago joan izana gustatuko litzaigukeen arren, egiazko ikerketa serio eta objektibo bat emateko beharrezkoak izan diren denbora eta pausok eman dira".

Miguel Castells abokatari gairen inguruko konsulta egin ostean eta zinegotzi guztiak aurkeztutako informe batean oinarriturik, Somotoko hiru erakundeek OHLOS, ASODECOM eta Somotoko Alkatezari emandako diru-laguntzen inguruko legezko tasun kontu-ikuskapen bat egiteari ekin zitzaion. Hau burutu du hain zuzen, Zubizarreta Consulting enpresak.

Azken honen lana jaso ondoren, beharrezkoak ziren datu guztiak dituztela azaldu dute udal ordetzariek eta orain abokatua "aurkitutako irregularitasunen eta etorkizunearn hartu beharrenek ekintza legal posibleen inguruan azterketa egiten ari da". Horretarako epe finikorik ez dela ezarri izan zuten.

Irregularitasunak

Bestetik, aholkularitzaren enpresak oposizioak bere garaian

esandakoak egiaztatu dituzela azaldu zuten "2000 eta 2010 urteen artean diru-laguntzen kudeaketan irregularitasun larriak izan zirela".

Zehazki hurrengo irregularitasunak aipatzen dira bostenean azaldukoaren arabera: laguntza justifikatuaren zenbatekoaren kontrol finantzariorik ez da egon eta ondorioz justifikatu gabeko laguntzen itzulpen eskaeren beharra. Lasarte-Oria-Somoto anaitasun bulegoaren izaera juridikoaren gabezia. Laguntzen kontzesioan hutsuneak. Jabetzen erosketa eta ziesioen erabakietan eskumen falta alkatetzaren aldetik eta azkenik, lan kontratu baten formalizazioan egungo legea ez betetzea.

Kudeaketa pertsonalita

"Ordezkatuak gauden alderdion ustetan guzti hauek ez dira akats puntualak, ezta akats multzo bat ere, baizik eta gertaerak egiaztatzen

duten moduan, 2009 arte sistematikoa izan zen eta kudeaketa guztiz personalista, ilun eta justifikatu ezinezko oinarrituriko funtzionatzeko modu baten fruitu dira".

Aste honetan emandako prentsaurrekora Jesus Zaballosek "hemen ordetzatuko eginko kaltea dela eta barkamena eskatu behar genuela esan zuten eta gainera gaizki eginko onartu beharko genituzela. Benetan ulertezina egiten zaigu interpelazio hau. Batekik, kontu-ikuskapen berri honek aurretik esanak egiaztatzen ditu eta bestetik pentsatzen dugu, logikoki eta arrazoiz horregatik, irregularitasun horietan inplikatu izan den parteari dagokiola bere ekintzengatik eta gure udalerriri eginko kaltearengatik barkamena eskatzea".

Gertaera guztiak argitu eta Lasarte-Oria nahiz Somotoko herriarentzako suposatuen kaltearen arduradunen bilaketan bukaeraino iriste-

ko konpromisoa agertu zuten.

PSE-EEri eskaera

Agerraldian aipatu zuten ez dutela ulertzen "Inaki Mugika, Somotoko diru-laguntzei zegozkien aurrekontuetako partidien arduraduna izan zena 2001 gerotetik eta baita Lurdes Acevedo ere Kooperazioko laguntzak kudeatzen zituen Departamentuko arduraduna, oraindik Lasarte-Oriako PSE-ren erroetan egotea".

Eza Ana Urchuegia alkate ohiak agintzen zuten garaiko PSEren ekintzak babestu eta justifikatzeko saiakerak ere.

Horregatik, "Lasarte-Oriako sozialisten eludunari dei egiten diogu, kanpo kontu-ikuskapen hauetan jasotako irregularitasunen jakitun, argi eta garbi erantuz dezan ea oraindik Ana Urchuegiak garai hartan egin zuten kudeaketa bermatzen jarraitzen duen".

PSE-EEren ustez, erabilera politikoa

Jesus Zaballosek asteartean egindako agerraldian "behingoz" Somotora bideratutako diru laguntzen afera itxia eskatu zuten. Bere esanetan, Bildu, EAJ eta LOHP-ek eskatutako azken auditoriaren arabera, ez dago ilegaltasun zantzurik.

Zaballosek gogoratu zuten Ezker Batua eta Platformatik bere garaian jarritako salaketa artxibatu egin zela. Jesus Zaballoren iritziz, salaketa alderdiek erabili nahi izan zuten PSE-EE Lasarte-Oriako alkatezari botatzeko helburuarekin.

PSE-EErentzat Bildu, EAJ eta LOHP alderdiek inoiz ez

dute afera argitzeko asmorik izan. "Hauteskunderetan gure aurka erabiltzeko tresna gisa mantendu nahi dute Somotoko gaia".

PSE-EEko ordetzariak esan zuten dena argitzeko lehen interesatuak beraien, bere taldea dela. Euren azken berrien arabera, Miguel Castellés abokatuk aztertu zuten gaia eta honek auditoria bat egin eta ostean, berri ere gaia hartzeko prest azaldu zen. "Lehenengo konsulta hori herritarrei 1.815 euro kostatu zitzaizun". Bildu, EAJ eta LOHPek auditoria egitea onartu zuten eta dagoeneko egin da.

BIYAK BAT

Lekeitoria bidaia

Biyak Bat elkarteak Lekeitoria antolatu du irteera. Apirilaren 11ean Bizkaiko kostako herrialdeko bisitatu dute elkarteak kideek. Horretarako goizeko 9:00etan aterako dira.

Antolatzaileek aipatu digutenez, interesa badago itsasgaria ere ezagutu ahaliko dute. Bazkarian sagardotegi menua izango da.

Izena ematea apirilaren 1ean, astearte hasiko da. Elkarteak bazkideek 35 euro ordaindu beharko dute, bazkide ez direnek berri, 37 euro.

UDA

Kanpaldietan izena emateko epea

Bihartik aurrera Ttakan kultur elkarteak antolatzen dituen Kanpaldi eta udaleku itxietan izena ematea irakitzeko da.

DBH1-DBH4 urte arteko gazteek kanpaldi ibilbideak egin dituzte. DBH1 eta DBH2 mailako gazteek Bizkaiko kostaldeko ezagutuko dute, uztailearen 3tik 14ra; zaharrenek berri, uztailearen 15etik 26ra Nafarroan mugilduko dira. LH3-4 mailako gazte-txoei Gobiaren, Araban izango dituzte udaleku itxiak, uztailearen 16tik 25era.

Izena ematea Ttakan kultur elkarteak bulegoan egingo da soilik. Informazio gehiago eskuratu nahi duenak bulegora hurbildu eta 943 371 448 telefonora deitu behar du.

GAZTEAK

Bertsoa 8mm-tan lehiaketa

Kadrillategik Bertsoa 8mm-tan lehiaketa antolatu du. Bertsoa ardatz hartuta bideoa osatu behar dute parte hartu nahi duten gazteek. Lehiaketa irekia da eta DBHko herriko ikasleek dute aukera euren bideoak bidali eta saria eskuratzeko.

Antolatzaileek bi gai zehaztu dituzte, "Zer behar du Lasarte-Oriak?" edo "Uda perfektua?". Huetako bat hautatu eta 1/30 eta 5/ arteko iraupena duen bideoa egin beharko da. Hau maiatzaren 2a baino lehenago bidali beharko da kig@lasarte.com helbidera.

Edozein zalantza argitzeko ere helbide honetara mezuza bidaltzea eskatzen dute antolatzaileek.



Ainhoa Merzero sopranoa eta Alberto Saez piano-jolea ostiraleko kontzertuan.



Zero Sette Akordeoi Orkestrak lau pieza jo zituen herrikideen aurrean, J.M Crespo zuzendariaren esanetara.



Arimaz Orkestra eta Santa Zezilia besbatza elkarlanean aritu ziren.

II. Aste Musikala abian

Bost kontzerturekin gozatzeko aukera izan dute lasarteorietarrek asteburuan

Manuel Lekuonako auditorio nagusia musika instrumentu eta ahotsen doinuek hartu zuten ostiral, larunbat eta igandeak. II. Aste Musikaleko lehen txanpa honetan abesbatza bat, kamara orkestra bat, soprano ahotsa, piano-notak eta bi akordeoi orkestra izan dituzte herritarrek gozagarri.

TXINTXARRI

Ostiral ilunabarrean ireki zuten programa Ainhoa Merzero sopranoak eta Alberto Saez piano-joleak Manuel Lekuonako kultur-etxean emandako kontzertu dotore batekin.

Besteak beste, Guridi, Sorozabal, Puccini edota Merceroeren obrak interpretatu zituzten atzealdean irudi esanguratsuak lagun zituztela. Kallitate handiko kontzertuaz

gozatzeko aukera izan zuten auditoriora bertaratu ziren 70 herritarrek.

Larunbatean Kepa Martinez de Alberdi zuzendariak Arimaz Kamara Orkestra eta Santa Zezilia Abesbatza zuzendu zituzten. Tolosako orkestrak Donostiako abesbatzarekin elkarlanean, XIX. mendeko obrak interpretatu zituzten bertaratu ziren ikusle askoren aurrean.

Igandean akordeoia izan

Zero Sette eta UME

Herriko akordeoi orkestrak jarri zion II. Aste Musikaleko lehen ekinaldi honi amaiera.

Mahr, Boieldieu, Rixner eta Merceroeren lau pieza jo zituzten denera J.M. Crespo zuzendari irudik. Udal Musika Eskolako trikitilari eta panderojoleek egin zuten bi emanaldien arteko trantsizioa.

Asteburu honetan Kalakan eta Musikaren Metal Ensemble entzuteko aukera izango da.

Kalakan-en kontzertua Manuel Lekuonan

Musikari eskainitako astearren baitan, Kalakan iparraldeko taldearen kontzertua izango da ostiralean, apirilak 4, Manuel Lekuonan 22:00etan.

Bigarren urtez antolatu du udaleko kultura sailak herriko hainbat elkarteren laguntzarekin batera Aste Musikala. Bi asteburutan izan da musika estilo ezberdinez osatutako egitarauaz gozatzeko aukera eta taldeen artean entzute-tsua ostiralean etorriko da gurera, Kalakan taldea.

Thierry Biscary, Xan Errotabehera eta Jamxel Bereau osatzen dute Kalakan. Taldea nazioartean famatua egin zen Madonna abeslariarekin batera 2012an egindako birari esker. Zazpi hilabetetan 80 kontzertu inguru eskaini zituzten eta mundu osoan egin zuten ezagun "Sagarra jo!" kanta.



Kalakan taldearen kontzertua izango da ostiralean Aste Musikalaren baitan.

Ahotsak eta perkusioak dira musikaren oinarri bakarrak, "emozio simple bat entzulearen baitan sortarazteko asmoz".

Euskal musika tradizionalen oinarritu arren, askoz harago eramaten dute euren

musika. Tradizioetik abiatuta sortzen dituztelako euren doinuek.

Euskaraz kantatzen dute eta euren nortasuna euskararen kolorean, neurrian, anitzasunean eta hizkuntzak berak daraman musikan,

oinarritzen dela dio hirukoteak.

Kalakan taldekoek Manuel Lekuonara ekarriko dituzte euren doinuek, tartean, txalaparta, atabal, tñun tñun, pandero, eta hirukoteak berak sortutako danborrekin.

Gertukoa

Madonnaekin izandako esperientziaren ondoren, taldeak emanaldi txiki eta intimotara bueltatu nahi izan du eta halakoa izango da ostiralean, Lasarte-Orian Aste Musikalaren barruan eskainiko dutena.

Euren musikaren bitartez, gertuko harremana bilatu eta ikus-entzuleengan emozio ezberdinak sortzea izango dute helburu.

Ostiraleko kontzerturako dagoeneko sarrerak salgai jarri dira. 5,40 euro Internet bidez erosita eta Manuel Lekuonako leihatilan 6 eurotan.

Momentu honetan hirukotea ohiko kontzertuez gain, "Herritimo" ikuskizuna egiten ari da ere Euskal Herriko agentoki ezberdinetan Oreak-Tx eta Kukai dantza taldearekin batera.

2.
FASEA

www.garraioahobetzen.net



herritarrekin
martxan en marcha

Gipuzkoa
ERORTIA

Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua

Gipuzkoa
ERORTIA

PARTE HARTU
ETA IRABAZI

Parte-hartzaile guztien artean
MagU/Lurraldebus tartela
kargatzeko 20 euroko herenak
zetz egingo dira.

GIPUZKOAKO AUTOBUS ZERBITZUA HOBETU NAHI DUZU?

56 herritan jasotako ekarpenak kontuan hartuta, autobus zerbitzuaren inguruko proposamena landu dugu. Orain, proposamen hori zure beharretara egokitzen ote den jakin nahi dugu. Etorri eta parte hartu zure herrian egingo den bileran edo egin ekarpena webgunearen bidez: www.garraioahobetzen.net

Lasarte -Orian

EGUNA: Apirilak 9
ORDUA: 18:30ean
LEKUA: Villa Mirentxun

SASKIBALOA.

Garaiezin diraute Ostadarreko neskek

Aurtengo denboraldian hemezortzi partida jokatu eta guztiak irabazi dituzte kadete mailan

Kadeteen errendimendu mailan, bigarren faseko zortzigarren partida jokatu zuten Ostadarreko neskek larunbat arratsaldean Lasarte-Oriako Udal kiroldegian. Erraz menderatu zuten Soraluze-Bergara 67 eta 24ko emaitzaz. Junior mailan ere berri onak utzi zituen asteburuak, Ostadarreko neskek 57 eta 24 garaitu baitzuten SUMMA Aldapeta taldea.

TXINTXARRI

Ostadarreko neskek ez dute etenik. Su txikian egositakoa mahai gainera ateratzen ari dira denboraldi honetan. Eta badirudi ezin aseturik dabiltzala. Horren erakusgarri da kadeteen errendimendu mailan aurtengo denboraldian ez dutela alerik galdu.

Hemezortzi partida jokatu eta guztiak irabazi dituzte. Balentria handia egiten ari dira Itziar Bermudez eta Ander Otaegiren neskek.

Etxean eroso

Soraluze Bergararen aurkako neurketan etxekoak nagusitu ziren hasi eta buka. Beraiek markatu zuten neurketaren errimoa eta nahieran aritu zirela esan daiteke.

Lehen zatia orekatuegaxoa izan zen. Bigarrena aldiz, Ostadarren erakustaldia. Hirugarren laurdenean txakalaldi txiki bat izan zuten arren, azken hiru minutuetan 12-0eko partziala sartu zieten herriarrek bisitariari.

Lauko finala

Denboraldi honetan izaten ari diren emaitza bikainek badute fruitua.

Apirilaren azken aste-bukaueran Aieten izango baitira Ostadarreko neskek Gipuzkoako talde onenekin mailaz igotzeko lehian.

Partida hau jokatu aurretik jada eskuraturatu zuten txartela eta Otaegik badu fedea bere nesken gain: "Gauzak ongi egingo gero txapelaldian iritetea aukerak dauzkagu. Horretarako egingo dugu borrokan".



Ostadarreko jokalariek lan itzela egin zuten Soraluze-Begararen aurka, batez ere azken laurdenean.

Juniorrak sendo

Asteburuko beste partida Ostadarreko juniorrek eta SUMMA Aldapetaren artekoa izan zen.

Endika Marrahi prestatzailak azaldutakoaren arabera neurketa "berdintuta" hasi zen, defentsa jokoan bi taldeak sendo arituta. "Azken laurdenean egin dugu ihes, ordura ere gogotik egin behar izan dugu lan eta zelai osoan presioa eginaz beste garaipen bat zakuratu dugu".



Ostadarreko kadeteak Bermudez eta Otaegirekin partida hasi aurretik.

IGERIKETA.

Igerilariek lan ederra GIF Sarian

Buruntzaldea IKT-ko errendimendu eta ibilbideko infantil, junior eta absolutuak Donostiako Paco Yoldi igerilekuan izan ziren GIF Sarian parte hartzen.

Borja Apeztegia taldeko entrenatzaileak aipatu digunez, "emaitza bikainak lortu zituzten gure igerilariek". Izan ere, Espainiako gutxieneko berri bat, 21 marka partekatuta lortu zituzten gazteek eta finalatan lehiatu zituen gehienak.

Azpiemarragarriena, Itxaso Tolosak 200 m. bizkar proban lortutako Espainiako gutxieneko marka izan zen.

Honela, Inigo Ibarbururkin batera apirilaren 10etik 13ra Palma de Mallorcan ospatuko den Open txapelketan izango da.

Honetaz gain, 50 m. eta 100 m. bizkar probetan bere marka hobetu zuten eta Ope-nerako gutxienekoak ehune-



Itxaso Tolosak ederki egin zuen lan 200 m. bizkar proban.

koetara geratu zen bi kasuetan. 100 m. libre proban ere marka pertsonala egin zuen.

Marka pertsonalak

Mikel Ensalek ere lan ona egin zuen. 100 m. libre proban bitan hautsi zuen bere marka eta 50 m. bizkar proban ere hobetu zuen.

Haitz Mitxelena eta Naia-

ribili zen" eta marka pertsonal berria egin zuen.

Inigo Ibarburuk entrenamendu modura hartu zuen txapelketa. Izan ere, Espainiako Opena prestatzen ari dela azaldu du Borja Apeztegiak. Hala ere, 50 m. bizkar probako bere marka pertsonala hautsi zuen.

Igerilari hauetaz gain, besta infantil ere lehiatu ziren. "Marka pertsonalak egitea ere lortu zuten batzuentzat igerileku luzean lehen aldiz lehiatuz ziren aldia zen honetan".

Nahia Jie Villamedianak 100 m. libre eta 50 m. bular probetan hobetu zuen bere marka; Nora Iruzastak 100 m. libre eta 50 m. bular probetako; Janire Berasartek 100 m. libre, 50 m. bular eta 400 m. libreetan; Behat Alkortak 100 m. libre eta 50 m. bular probetan eta Jon Ibargoienek 100 m. eta 400 m. libre probetan.

Lizosok 100 m. libre proban bere marka hobetu zuen. 400 m. libreetan "ikaragarri

GIMNASTIKA.

Gimnastak Gipuzkoako txapelketarako prest

Eskolarteko A maila eta amateur mailako txapelketako bigarren saioa burutu zen larunbatean Ibaran eta LOKEko gimnastak ederki lehiatu ziren.

Senior A mailan Aizpea Arroyo eta Aina Apeztegiak Jubeniil B mailan xingolarekin lan egin behar izan zuten. Aizpeak 4. postua eskuratu zuen. Saikapen orokorrean berri, lehenegoa izan zen. Apeztegiak 7. postuan amaitu zuen; orokorrean zortzigarrena.

Jubeniil A taldeak soka lanarekin 4. postua lortu zuen eta orokorrean 5. izan ziren.

Borreakin lan egin zuen kadete B taldeak eta lanak 5. postua merezi izan zuen. Saikapen orokorrean 3. izan ziren.

LOKEko entrenatzaileak oso pozik agertu dira, gimnastak guztiak mailatean ospatuko den Gipuzkoako txapelketan izango baitira lehian.

— Agenda —

Astelehena 31-Apirilak 5, Sasoeta-Zumaburu ikastetxea



Kulturanzitasuna ospatzen

Burunpe Sasoeta-Zumaburu Guraso elkarteak Udalen inguruan laguntza, 2014 urteko Kulturartekotasun astea antolatu du. Haur, zein helduentzako ekintzak izango dira astean zehar eta batez ere, apirilaren 4 eta 5ean. Kultura ezberdinak ezagutzeko aukera izango da.

Martxoak 31, astelehena (Sasoeta)
 17:30ean, Kulturanzitasunaren astearen aurkezpena.
 17:45ean, esperientzia integratzaileak.
 19:00etan, tea eta mahai-ingurua.

Astelehenetik Ostiralera (Sasoeta-Zumaburu)
 Kultura-aniztasunarekiko jardura didaktikoa.

18:00etan, saltsa ikastaro azkarrak
18:30ean, "Habana Son" eta Amaya Caballero.

Apirilak 5, larunbata (Sasoeta)

11:00etan, ginkana nazioarteko senidea: lokobakak...
 12:30ean, euskal dantzak. Kukuka.
 13:00etan, herri bazkaria haurrek.
 14:00etan, herri bazkaria helduek.
 15:00etan, arabiar tea jaiman chillout musika arabiararekin.
 17:00etan, merienda.
 17:00etan, sevillana ikastaro azkarrak.
 17:30ean, Zambrairen ekitaldia.
 18:00etan, Bollywood ekitaldia.

Apirilak 4, ostirala (Sasoeta)
 16:30ean, merienda.
 16:30ean, tailerrak: henna, gliboflexia, txalaparta, eva goma,...
 16:30ean, "Kubatar sustraik" erakusketak.

Larunbata 5, 21:30ean
 Fake Against The Machine-k RATM taldearen doinuak erakarru dituzte Lasarte-Oriara. Sarrera aurrez erostu, 8 euro; leihatilan, 10 euro.
Larunbata 5, 23:55ean
 DJ Chelsen eskutik musika elektronikoa bereziaz gozatzeko aukera.

Bakarrikzeta

ABEND KAFE-ANTZOKIA
Larunbata 5, 00:00etan
 Humberto Gutierrez-en umorezko bakarrikzeta Encomendados bakarrikzeta zikloaren barruan.

Gure Esku dago

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Larunbata 5, 12:00etan
 Gure Esku dago taldeak sinadura bilketa eta argazki eraldioa antolatu du.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 6, 17:00etan
 Haurren zinea atalean, "Los cinco. El misterio de la joya escondida" filma izango da. Sarrera, leihatilan 3,70 euro; internet bidez, 3,18 euro. Gaztelaniaz.



Igandea 6, 19:30ean
 Helduentzako zinea, "Al encuentro de Mr. Banks" filma ikusteko aukera izango da. Sarrera, leihatilan, 5,90 euro; internet bidez, 5,30 euro. Gaztelaniaz.

Mundua pil-pilean

ELEBELTZ TOPAGUNA
Asteartea 1, 19:00etan
 "Mundua pil-pilean. Jardunaldi Internazionalistak" hitzaldi zikloaren barruan, saioan Txente Rekondo nazioarteko analistak "La primavera árabe y la centralidad de Siria" solasaldia eskainiko du.

II. Aste Musikala

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Ostirala 4, 22:00etan
 Kalakan taldearen emanaldia izango da. Sarrera internet bidez, 5,40 euro eta leihatilan 6,00euro.
Larunbata 5, 20:00etan
 Musikene Metal Ensemblek kontzertua eskainiko du.

Musika

ZULO ARETOA
Ostirala 4, 22:00etan
 Luis Beltza records dj-aren eskutik, Marvin Gaye-ri tributo jaialdia egingo zaio.

Andoain

Opera proiektzioa

BASTERO KULTURAGUNA
Asteazkena 2, 20:00etan
 Giuseppe Verdiren "Carmen" operaren proiektzioa eskainiko dute. Sarrera aurrez, 7,5 euro; egunean bertan, 9 euro.

Bertoak

BASTERO KULTURAGUNA
Larunbata 5, 19:00etan aurrera
 "Sorozailetik Mendizlerako" bertso jaialdia ospatuko da. Harrera saioa doan izango da. Ostean, 20:30ak aldeara, bertso afaria egingo dute.

— Herritarren txokoa —

Odol-ateratzea

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan gaur, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.
 Anima zaitzete, odola ordetzakezina da eta odol falta dago!

Gure Esku dago

Gure Esku dago ekimenak ekainaren 8-an Durango eta Iruñea artean egingo duten giza katean Lasarte-Oriari dagokion kilometroan zure metroa erosi nahi baduzu, herriko taldeko kideak ostiralero Okendo plazan izango dira arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara.
 "Ez zaitze lekuri gabe geratu Euskal Herriaren historiako une garrantzitsu eta berezi honetan, etorri bizkor!"

Megaba elkarte kide berrien bila

Lasarte-Oriako Megaba elkarteak jende gehiago behar du bere jarduna aurrera eramateko. Horregatik, herritarrek animatzen dituzte honetan parte hartzea.

Horretarako www.megaba.es weban formularioa bat bete edota 649 513102 telefonora deitu behar da. Urtean 10 euroko kuota ordaintzen dute.

Erketzeko taldeen entseguak

Erketzeko taldeen entseguak Erketzeko Lagunak taldeak lanean ari dira.
 Erketzeko Lagunak taldeak asteartetan dituzte saioak eta Erketzeko Lagunak taldeak, berriz ostegunetan.
 Entseguak Zumaburu ikastetxeko gimnasioan dira, 20:00etatik aurrera ohi bezala.

Era berean, 5 urteko aurrerako haur eta gaztekoek ere Erketzeko Lagunak taldeak egiteko aukera dute.

Azalpen edo informazio gehiago eskuratu nahi dutenek 635 746 028 telefono zenbakia jarri du eskura dantza taldeak.

Eskutitza

Donostiako bidegorria eta beste aukera batzuk

Foru Aldundiak aurkeztu berri du Lasarte Donostiarekin oinez eta bizikletaz lotzea ahalbidetuko duen bidegorri proiektu berria. Gaur egun bi herrien artean dagoen komunikazio egoera zeharo anomala kontuan izanik, albiste bikaina da, dudarik gabe, eta era bikainagoa izango da baldin eta epeak bete eta, agindu bezala, eraikitze lanak aurtan bertan hasten badira.

Lehen bazen beste bidegorri proiektu bat, baina hura Errekaldetik gora zihon; beraz, luzeagoa, aldapatsua eta askoz garestiagoa zen. Proiektu berriak, berriz, Eusko Trenek azkenaldion Irubide aldean libratu duen trenbide zatia aprobetxatzen du, eta, horri esker, zuzenagoa, erosoagoa eta askoz merkeagoa da; azken batean, erabilgarriagoa eta egingarriagoa.

Arestian esan bezala, albiste bikaina. Hala ere, gure ustez, Lasartek Donostiarekin bidegorri batetik harago beste lotura batzuk ere auzeratu beharko lituzke. Zehatz-mehatz, Lore Tokiraino iritsiko omen den Añorgako bulebarrizazioa Lasarteraino bertaraino

luzatzeko aukera aztertu beharko luke. Aztertu, behintzat.

Bestalde, Lasarte-Oriak ez du oinezkoentzako eta txirridularientzako lotura arazorik Donostiarekin soilik, inguruko herri guztiekin baizik. Horra Usturbilgo kasua; horra Andoaingoa.

Gauzak horrela, Lasarte-Oria inguruko herriein oinez eta bizikletaz modu normalean lotzeko aukerari buruzko azterketa bat egitea ezinbestekoa iruditzen zaigu. Badakigu urtean eraikituko oztipoak ez direla berehala gaindituko, baina noizbat azterten hasi beharko da baina gainditu, noizbat gainditu nahi baditugu, behintzat.

Gure ustez, pena handia litzateke legealdia bukatzea langintza honi ekin gabe, maila teorikoa besterik ez bada ere.

Martin Anso

Eguzki talde ekologistaren izenez

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Gaztelekua, hamaika aukera eskaintzen dituen gunea

Urtea bete du gazteentzako zerbitzu berriak atek zabaldu zituenetik

Dagoeneko urte bete igaro da Lasarte-Oriako Gaztelekua martxan jarri zenetik eta denbora honetan guztian espazio berri hau proiektu ezberdinez eta edukiz bete da. Proiektuaren helburua hasieratik gune berri hau gure Udalerriko gazteei beraien asmoetarako baliabideak eta aisialdi nahiz aholkularitza zerbitzu ezberdinak eskainiko dizkien erreferente bat bihurtzea izan da.

Urte batean azpiegitura berri hau aste osoko ekintza egitarauarekin bete da eta gazteen aisialdira zuzendutako dauden herriko hainbat talde eta elkarte bertako erabiltzaile finko bihurtu dira. Etorkizunerako zerbitzu berriak jartzeko asmoa du Lasarte-Oriako udalak.

Martxan dauden jarduerak

Urte honetan hainbat ekintza eta zerbitzu sustatu ditu udalak Gaztelekua bainan.

Irakurketa eta lan txokoa: Hasieratik gazte ugari adierazi dute gune hau erabiltzeko interesa eta gaur egun batez ere eskolatik bidalitako etxeko-lanak egiten edo ikasten aritzen dira arratsalde askotan.

Gainera bertan dago gazteentzako informazio bulegoa eta behar dutenerako aholkularitza ematen zaie.

Nerabeen txokoa: Nerabeentzako zerbitzu bat martxan dago eta begiraleak dira asteartetik ostiralera arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara beraien aisialdira lantzeko ardua dutenak.

Dantza aretoa: Momentu honetan asteartetik larunbatera bitartean dantza aretoa beteta egoten da eta bertan mota ezberdinetako saioak izaten dira.

Esaterako, Kukukako DBH1 eta DBH4 arteko gazte taldeak bertan egiten dituzte entseguak. Bi gazte talde aritzen dira ere break dance saioak egiten asteen hiru bider eta Gaztelekua antolatutako Zumba ikastaro arrakastatsuak hartzen du gela ostegunero.

Familia Heziketa zerbitzua: Taldea sortzeko zailtasunak, babesgabetasun edo arrisku egoeran dauden 14 eta 16 urte bitarteko gazteak hezitzaileekin lan ezberdinak burutzen dituzte Gaztelekuan.

Besteak beste, zerbitzu hau bideratu da familia arazoak, isolamendu soziala edo integrazio eza, eskola porrota, lan munduan sartzeko eta jendartean kolaboratzeko motibazio eza, berdinkideekin edo inguruarekin liskarrak, harremanak izateko gaitasun falta edo berdinkide talde egonkor eza duten gazteei zuzenduta.

Proiektuaren helburuak gazte integrazio sozialean laguntzen duten ohiurak eta gaitasunak lortzen laguntzea da, komunitatean eta gertuko inguru sozialean rol aktibo eta parte-hartzaile betetzen ikastean, proiektu kolaboratzaile baten parte egitea. Praktikaren ikuspuntutik formakuntza eta lana aurreko



Dantza aretoan egiten den Zumba ikastaroko arrakasta handia izan du gazteen artean.

esperientzia positibo eta berriak gehitzea bilatzen da.

Entsegu gelak: Gaur egun 19 musika talde aritzen dira Gaztelekuan dauden bi entsegu geletan eta asteartetik larunbatera eguerditik hasita ilundu arte aritzen dira entsegutan. Musika estilo ezberdinetako taldeak dira AOD, DYPA, Radio Nowhere, The Garax, La huerta del punk, A human disaster, Son Kandela, Strummer band, Electronic galery, Obito, Without me, Psikoacoustic, Hogei minutu, Zokormazto eta partikular moduan izena eman duten beste hainbat.

Bilera gelak: Gaztelekuan bi bilera gela daude nahi duenaren eskura, erabilerara jarraia izan dezakete. Orainxe bertan, erabilerara jarraia talde batek bakarrik ematen dio, RD jokoan jokalarri elkarteak.

Etorkizuneko apostuak

Nerabeentzako zerbitzu berria jartzea izango da eronka nagusietako bat.

Hurrengo ikasturtean martxan jarriko da eta nerabeen ezaugarri, interes eta beharrei erreferentzia, horien gain eragiteko helburua izango du. Honek pertsona eta hiritar eraikuntza modu ezberdinen garapenerako baldintzak sortzea bilatuko du.

Neska-mutleiei ingurune hurbilenean aurki ezin dituzketen aukerak bilatzen lagunduko die eta bizitzan aurkituko dituzten arrisku egoerei autonomoki erantzun ahal izateko baliabideak eskaintzea bilatuko du besteak beste.

Sexologia zerbitzua izango da beste berrikuntzetako bat. Emakumeen zentroan dagoeneko martxan dago sexu aholkularitza bulegoa.

Baina asmo honen funtzionamendua mugikorra izatea da zerbitzua ahalik eta herriar gehienei eman ahal izateko. Horregatik, ostegunetan 18:00etatik 20:00etara, sexu aholkularitza bulegoa Gaztelekuan egongo da.

Azkenik, sarrera elektronikoa jarriko du udalak. Orain arte ordutegi mugatua izan du Gaztelekua eta bertako erabiltzaileak gazte informazio bulegoaren ordutegira moldatu behar izan dira.

Hemendik aurrera ordea, bertara sartzeko txartel bidezko sarrera elektronikoa jarriko da martxan eta erabiltzaile guztiak izango dute aste osoan zehar eta ordutegi-rik gabe nahi dutenean sartzeko aukera.

Neurri hauekin guztiekin Gaztelekua erabilerara zabaldu, sustatu eta zerbitzuaren errotzea bilatzen du Udalak.

